



**Asea Brown Boveri, SAre Salmenta Baldintza Orokorak
(Zerbitzuak ematea, Konponketak, Muntaketak,
Lanak, Instalazioak eta Obrak)**

Madril, 2011ko otsaila

1. Orokortasunak.

1.1 Asea Brown Boveri, S.A. enpresak (aurrerantzean Saltzailea) egingo dituen zerbitzu, konponketa, muntaketa, lan, instalazio eta obrak (aurrerantzean Zerbitzuak) Salmenta Baldintza Orokor hauen menpe egongo dira, salmenta baldintza berezi gisa dagokion eskaintzan edo eskariaren onarpenean beste modu batez berariaz hitzartuta dagoenari dagokiona izan ezik. Hori dela eta, Saltzaileak berariaz onartzen ez dituen baldintzek ez dute baliorik izango, ondorio guztietarako.

1.2 Zerbitzuak gauzatzearen barruan Saltzaileak osagai, ekipamendu eta sistemak edo bestelako materialik hornitzea sartzen bada, aparteko hornigaien salmenta hori "Osagai, Ekipamendu eta Sistemen hornikuntzarako Saltzaileak prestatu dituen Salmenta Baldintza Orokorren" menpe egongo da.

1.3 Erosleari Baldintza Orokor hauek zein web orritan aurki ditzakeen esan edo eskaintza bat salmenta baldintza hauekin batera ematen zaion unetik bertatik, esan daiteke Saltzaileak Baldintza Orokor hauek ezagutzen dituela. Erosleak baldintza hauek ezagutzeko beste modu bat izan daiteke, aurretik Saltzailearekin hartu-eman komertzialak izaten hasten denean jasotzea. Kasu horietan guztietan esango dugu Erosleak, eskaera aurkezten duenerako, baldintzak onartu egiten dituela, ondorio guztietarako.

2. Jabego intelektuala eta industrialak.

Eskaintzaren jabego intelektuala edota industrialak, bere termino guztietan, eta eskaintzarekin batera ematen den informazio guztia, bai eta esaterako

zerbitzuak ematearekin batera edo hari buruz eskaintzen den dokumentazio teknikoa, ingeniartzako informazioa, prozedurak, planoak, marrazkiak, "softwarea" ere, Saltzailearenak edo bere hornitzaileenak dira. Beraz, berariaz debekatuta dago Erosleak eskariari erantzutea ez den bestelako helburu batzuetarako erabiltzea. Halaber debekatuta dago informazio horren guztiaren zein zati baten kopia egitea eta hirugarrenei uztea, Saltzaileak horretarako baimena idatziz eman ez badu behintzat.

3. Eskariak formalizatzea eta zerbitzuen helmena.

3.1 Zerbitzuen helmenak garbi azalduta egon beharko du Eroslearen eskarian. Eskaria eraginkorra izateko, Saltzaileak berariaz onartu beharko du.

3.2 Prestazioan eskariaren helburu diren zerbitzuak baino ez dira emango. Eroslearen eskarian berariaz sartuta egon ez arren Zerbitzuak gauzatzeko beste zerbitzu, lan edo jarduera zuzenean edo zeharka egin behar bada eta Saltzaileak zerbitzu, lan edo jarduera horiek onartzen baditu, egiten den hori Eroslearen kontura egingo da bere betebeharra delako. "Prestaketa lanak. Hitzartu gabeko lan, zerbitzu eta horniketak. Baimenak eta onarpenak" izeneko 6. atalean badira horren gaineko aurreikuspenak.

3.3 Aldeetako batek eskariaren helmena, epeak edo bestelako baldintzak aldatzea proposatuko balu, beste aldeari jakinarazi beharko lioke. Jakinarazpena beti idatziz izango da, eta proposamenak balio izate beste aldeak onartu beharko ditu. Aldaketak edota berrikuntzak ere izango dira dagokion eskaintza aurkezten den egunetik aurrera aplikagarri diren lege, erregelamendu eta araudietan egiten diren

aldaketek eragindakoak; aldaketa edota berrikuntza horiek direla eta, Saltzaileak beste betebeharrak edo gastu gehiago izango balitu, Saltzaileak eskubidea izango luke hitzartutako baldintzak modu justuan egokitzeko, aldatutako lege edo arauak edo lege edo arau berriak izan dituen ondorioak ondo islatzeko.

4. Prezioak.

4.1 Zerbitzuen prezioak, bai langileengatik bai ekipamendu osagarriak, garraio materiala, kontsumigarriak, eta bestelakoak erabiltzeagatik, unitateko tarifetan oinarritzen dira. Unitateko tarifak, Saltzailearen eskaintzari erantsita joango direnak, tarifa garbiak dira eta ez dute BEZa eta bestelako zerga edo tasarik bere barne hartzen. Zergak edo tasak ondoren jasanaraziko dira fakturan, dagokien tasa aplikatuta.

4.2 Zerbitzuak gauzatzeko egin beharreko lan guztietarako ordu kopuru bat kalkulatu bada, esan behar da ordu kopuru hori orientazio modukoa dela, fakturatzeko orduan benetan egindako orduak hartuko dira-eta kontuan.

4.3 Eskaintzan adierazitako prezioak bertan zehaztutako ordainketa baldintzetarako direla ulertzen da. Ordainketa baldintza horiek aldatu egiten badira, eskaintzaren prezioak berrikusi egingo lirateke.

4.4 Saltzaileak eskaria onartu ondoren, Zerbitzuen prezioak finkotzat hartuko dira eta ezingo dira berrikusi. Halere, honako kasu hauetan prezioak berrikusi egingo dira:

- a. Erosleak eta Saltzaileak prezioak berrikustea berriaz adostu badute elkarrekin.
- b. Zerbitzuak gauzatzeko epea atzeratu bada edo Zerbitzuak berandu onartu badira, Erosleari zuzenean edo zeharka egotzi ahal zaion arrazoiren batengatik.
- c. Erosleak eskatuta Zerbitzuen helmena aldatu bada.
- d. Prezioak EUROA ez den beste moneta batean kotizatu badira, eskariaren egunetik mugari bakoitzaren fakturaziorako hitzarmenean ezarritako egunetara bitartean moneta horrek EUROArikiko duen parekotasuna aldatu den heinean.

e. Erosleak eskariaren helburu diren Zerbitzuak bere kabuz bertan behera utzi baditu.

5. Ordaintzeko baldintzak.

5.1 Aurkakoa hitzartu ezean, Zerbitzuak hilaren bukaeran fakturatuko dira, egindako lanen heinean banatuta. Ordainketak uztailearen 5eko 15/2010 Legeak, eragiketa komertzialetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duenak, aurreikusten duenaren arabera egingo dira, betiere legean bertan ezarritako gehienezko epeak gainditu gabe. Beste zerbaite hitzartu ezean, ordainketa hogeita hamar (30) eguneko epean egingo da fakturatu beharreko epealdia bukatzen denetik kontatzen hasita.

5.2 Ordainketa hitzartutako baldintzetan egingo da, Saltzailearen bankuko kontuan sartuta edo hitzartutako beste bide batez. Ordainketa ez da inolako kenkaririk aplikatuko, esaterako hitzartu gabeko atxikipenak, deskontuak, gastuak, zergak edo tasak, edo beste edozein kenkari.

5.3 Saltzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta, Zerbitzuak gauzatzean atzerapenik balego edo zerbitzuak beranduago jasoko balira, ordainketarako hitzartu diren baldintzek eta epeek berdin jarraituko lukete.

5.4 Erosleak ordainketak berandu egingo balitu, Saltzaileari atzeratutako ordainketa horren berandutza interesak ordaindu beharko lizkioke, inolako errekerimendua egin beharrik gabe eta ordainketa epea amaitzen den unetik aurrera. Berandutza interes horiek kalkulatzeko, abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio. Interes horiek ordainduta ere, Erosleak gainontzeko ordainketak hitzartutako baldintzetan egin beharko ditu derrigorrez.

5.5 Erosleak hitzartutako ordainketak berandu egingo balitu, Saltzaileak, berak hala nahi badu, hitzartutako Zerbitzuak gauzateari utzi ahal izango lioke aldi baterako edo behin betiko. Hori alde batera utzita, Erosleari atzeratutako ordainketak egiteko eskatu ahal izango dio, bai eta, kasuan kasu, Zerbitzuak gauzateari uztearen ondorioak konpentsatzeko aparteko ordainak erreklamatu ere.

5.6 Erosleak erreklamazio bat formulatzen badu ere, ez du eskubiderik izango hitzartutako ordainketak etetekeko edo ordainketa horietan deskonturik egiteko.

6. Prestaketa lanak. Hitzartu ez diren lanak, zerbitzuak eta horniketak. Baimenak eta onarpenak

6.1 Saltzaileak Zerbitzuak hitzartutako baldintzetan eta epeetan gauzatu ahal ditzan, Eroslea behartuta dago prestaketa lanak (sarbideak, ur hartuneak, argia, elektrizitatea, lur mugimenduak, drenajeak, obrak orohar, aurretiazko muntaketak, etab.) behar bezala egitera, dagokion epean eta bere kontura eta bere ardurapean. Era berean, Erosleak beharrezko dokumentazioa (marrazkiak, planoak, xehetasunak) eta ardurapean dituen lanen planifikazio egokia emango dizkio Saltzaileari, Saltzaileak zerbitzuak zuzen gauzatu ahal ditzan kontratatutako zerbitzuetan eragozpenik sortu gabe.

6.2 Erosleak zerbitzua gauzatzearekin zerikusia duten hainbat lanetarako langileak jarriko dituela agintzen badu (igeltseroak, peoiak, elektrikariak, etab.), langile horiek beharrezko prestakuntza izan beharko dute. Eroslea, berriz, arduratu egingo da indarreko legeriaren arabera langile horiekin izango dituen lege eta lan betebeharretan egunean egoteaz, bai eta lanean higiene eta segurtasun neurri guztiak zorrotz betetzeaz ere. Horretarako, aplikagarri den araudiaren arabera eduki beharko dituen dokumentu guztiak emango dizkio Saltzaileari. Dena dela, Saltzaileak ez du erantzukizunik izango lan horiengatik.

6.3 Aplikagarria den araudiaren arabera Saltzaileak Zerbitzuak gauzatzeko beharrezkoak izango dituen baimen eta onarpen guztiak Erosleak lortu beharko ditu eta Eroslearen erantzukizunak izango dira.

7. Lanaldia. Zerbitzuak gauzatzeko erraztasunak.

7.1 Saltzaileak bere langileen edo bere kontratisten lanaldia Eroslearen lanaldira egokituko du, Erosleak Zerbitzuak gauzatu diren lekuan jarduera industrialik garatzen badu. Halere, interferentziak ekidin nahi badira, edo geldialdiez baliatzen bada edo zerbitzuak eraikitzen ari diren lantegietan egiten badira, kasu bakoitzera egokitutako lanaldiak egingo dira.

7.2 Edozein modutan, Saltzailearen langileen edo kontratisten lanaldiak, iraupen, aparteko ordu, geldialdi eta atsedenaldiei dagokienez, indarrean dagoen lan legedira eta sektoreko hitzarmenetara egokituko dira. Saltzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta, lege ezarritakoa baino lanaldi txikiagoa egiten bada eta kasu hori eskaintzan

aurreikusita ez badago, lege ezarritako lanaldia fakturatuko da.

7.3 Ezarritako lanaldia edozein dela ere, Erosleak ahalik eta lan ingurune egokiena eskainiko dio Saltzaileari edo bere langileei eta bere kontratistei Zerbitzuak gauzatzeko, argia, berogailua, segurtasuna eta zaintza barne, besteak beste.

7.4 Erosleak lanerako beharrezkoak diren erraztasunak eman beharko dizkie Saltzailearen langileei edo kontratistei, esaterako komunak, bazkaltzeko toki bat, aldagelak, materialak, erremintak eta ekipamenduak gordetzeko eta biltzeko leku bat, eta zaintza.

8. Azpikontratazioa.

Saltzaileak Zerbitzuak gauzatzeko lanen zati bat azpikontratatu ahal izango du. Halere, Saltzaileak kontratatutako Zerbitzuak kalitatez eta ezarritako epean gauzatu diren ardura osoa izango du.

9. Laneko segurtasuna eta Koordinazioa

9.1 Eroslea izango da laneko segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzearen arduradun bakarra. Hortaz, honako hauen ardura izango du: (i) kontratatutako zerbitzuak gauzatu diren lan lekuaren berezko arriskuen gaineko informazioa; (ii) larrialdi egoera batean aplikatu behar diren neurriak; (iii) kasuan kasu, proiektu batean batera parte hartzen duten kontratuen eta kontratisten arteko koordinazioa; (iv) langileei kontsulta egiteko, parte hartzeko eta prestakuntza jasotzeko aukera, eta, oro har, (v) Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen aplikazioaren ondorioz laneko segurtasun eta higienearen alorrean bere langileek zein bere kontratisten langileek izan ditzaketen beste betebehar batzuk. Aurrekoa alde batera utzita, Saltzailearen barne araudiarekin bat datozen prebentzio arauak ere aplikatuko dira. Dena dela, Eroslearen prebentzio arauak zorrotzagoak badira, horiek beteko dira.

9.2 Saltzaileak ahalmena dauka Legearen 21. artikulua ezartzen duenaren arabera Zerbitzuak gauzatzeari uzteko, uste badu langileen segurtasuna bermatuta ez dagoela. Bestalde, atzerapenik gertatzen bada epea neurritz luzatu ahal izango du, eta galera edo kalterik badu, esaterako orduak galtzea, langileen desplazamenduak, dietak,

ekipamenduak eta tresnak ibilge uztea, Erosleak kalte edo galera horien ordaina emango dio, beti ere klausula honetan aurreikusitako betebeharrak eta erantzukizunekin eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legean jasotakoekin lotuta.

10. Zerbitzuak gauzatzeko epea.

10.1 Eskarian garbi adieraziko da Zerbitzuak gauzatzeko epea.

10.2 Zerbitzuak gauzatzeko epea aldatu egingo da kasu hauetan:

- a) Erosleak eskarian aldaketak egiteko eskatu eta Saltzaileak aldaketa horiek onartzen baditu, eta aldaketa horiek, Saltzailearen ustez, Zerbitzuak gauzatzeko epea luzatzea eskatzen badute.
- b) Erosleak prestaketa lanak egin ez baditu edo Saltzailearen ardurapean ez dauden betebeharrak, lanak, zerbitzuak eta horniketak bete ez badira, edo beharrezko baimenak edo onarpenak lortu ez badira, hori dena dokumentu honen 6. klausulan adierazten den moduan.
- c) Erosleak eskariaren kontratuaren arabera dituen betebeharrak bat bete ez badu, bereziki ordainketekin lotutako betebeharrak.
- d) Saltzaileari zuzenean egotzi ezin zaion arrazoi batengatik programatutako Zerbitzuak gauzatea galarazi edo atzeratzen dituzten egoerak sortzen badira. Hona hemen arrazoi horien adibide batzuk, baina ez bakarrik: hornitzaileen, garraio eta zerbitzuen grebak, hirugarrenei hornitzeko sistemetan akatsak, garraio sistemetan akatsak, uholdeak, ekaitzak, istiluak, grebak, saltzailearen langileen edo bere azpikontratisten geldialdiak, sabotajeak, Saltzailearen lantegian ustekabeko geldialdiak, esaterako matxurek eragindakoak, eta, 16. klausulan ezartzen den moduan, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ezinbesteko kasuak.
- e) Erosleak eskariaren helburu diren Zerbitzuak bere kabuz bertan behera uzten baditu.

Aurreko kasuetan, Zerbitzuak gauzatzeko epea luzatu badaiteke ere, ordainketak programatuta zeuden moduan egingo dira. Ordainketak mugarririk betetzearekin lotuta badaude, mugarririk lehenengo programazioa erabiliko da ordainketak egiteko erreferentzia gisa.

10.3 Kontratutako zerbitzuak gauzatzen atzerapenik gertatzen bada, eta atzerapena Saltzaileari zuzenean egotzi ahal bazaio, Erosleak Saltzailearekin aurretik hitzartutako zigorrak aplikatuko ditu. Zigor hori izango da atzerapenak eragindako kalteak ordaintzeko modu bakarra.

11. Zerbitzuak gauzatzeari uztea aldi baterako edo behin betiko.

11.1 Zerbitzuak gauzatzeko, Erosleak eta Saltzaileak baterako programazio bat adostu beharko dute, zerbitzuen iraupena eta zailtasuna kontuan hartuta. Saltzailearekin zerikusirik ez duen arrazoi bat dela eta, zerbait gertatu eta Zerbitzuak gauzatzeari utzi behar bazaio, Erosleak diru kopuru bat emango dio Saltzaileari izandako kalteen ordain gisa, esaterako galdutako orduengatik, langileek egin beharreko desplazamenengatik, dietengatik eta ekipamendu eta tresnak ibilge uzteagatik. Horretaz aparte, zerbitzuak gauzatzeari utzi zaionean bukatuta edo nahiko aurreratuta dauden Zerbitzuak ordainduko dizkio, bat-bateko etete horrek Saltzaileari eragin ahal dizkion kalte ekonomikoak ordaintzeko. Era berean, Saltzaileak eskubidea izango du Zerbitzuak gauzatzeko epea luzatzeko. Epe hori etenaldiak iraun duen beste denboraz luzatu ahal izango du, bai eta Zerbitzuak gauzatzeari berriro ekiteko alde aurretik egin beharreko jakinarazpenerako behar besteko denbora eduki ere.

11.2 Halaber, Saltzailearekin zerikusirik ez duen arrazoi bat dela eta, etenaldiak laurogeita hamar (90) egun baino gehiago iraungo balu, Saltzaileak eskubidea izango luke Zerbitzuak gauzatzeari behin betiko uzteko eskatzeko, ondorengo paragrafoan ezarritako ondorio berekin.

11.3 Saltzailearekin zerikusirik ez duen arrazoi bat dela eta, Erosleak aldi batean Zerbitzuak gauzatzeari uztea erabakiko balu, zerbitzuak modu antolatuan eteteko programa bat adostu beharko lukete Erosleak eta Saltzaileak batera. Era berean, Erosleak diru bat eman beharko dio Saltzaileari behin betiko etete horrek eragindako kalte eta galera guztien kostu eta gastuen ordain gisa.

12. Ikusapena eta harrera.

12.1 Eskarian zehazten diren kasuetan izan ezik, Saltzailea izango da Zerbitzuak nola gauzatzen ari diren ikuskatuko duena. Erosleak berak aparteko ikusapena egin nahi badu edo hirugarren batzuek

aparteko ikuskapena egitea nahi badu, beharrezkoa izango da Saltzaileak ikuskapen hori onartzea, eta, onartu egiten badu, ikuskapena Eroslearen kontura egingo da.

12.2 Zerbitzuak gauzatzen bukatu eta gehienez 15 egun balioduneko epean, Erosleak egindako Zerbitzuen ikuskapena egin beharko du Zerbitzuetan egon daitezkeen eta Saltzaileari egotzi ahal zaizkion akatsak edota hutsuneak antzemateko. Akatsik edota hutsunerik balego, Saltzaileari jakinarazi beharko lioke berehala.

12.3 Eskarian zehaztutakoaren arabera Saltzaileak eta Erosleak elkarrekin adostutako baldintza eta egunetan onarpen probak pasatu beharko dituzten kasuetan izan ezik, Zerbitzuak gauzatzen bukatu eta 15 egunetara Saltzaileak ez badu jasotzen egon daitezkeen akats edota hutsunen berri emateko Erosleak bidalitako jakinarazpen idatzia, Erosleak egindako Zerbitzuak onartzen dituela ulertuko da, eta egun horretatik aurrera garantia epea hasiko da. Era berean, Eroslea zerbitzuak egin zaizkion instalazioak edo ekipamenduak erabiltzen hasten bada, horrek esan nahiko du Zerbitzuak onartzen dituela.

12.4 Erosleak egin diren Zerbitzuen onarpenerako probak egitea adostu badu Saltzailearekin, proba horiek adostutako egunetan egin beharko dira. Horretarako, Erosleak probak egiteko beharrezkoak diren ekipamenduak, laguntzaileak eta kontsumigarriak jarri beharko ditu, Saltzaileari aparteko ezer kobratu gabe. Saltzailearekin zerikusia ez duten arrazoiengatik, proba horiek esandako egunetan eta balditzetan egiten ez badira, Erosleak egin diren Zerbitzuak onartzen dituela ulertuko da.

13. Bermeak.

13.1 Eskaintzan edo eskariaren onarpenean aurkakoa berariaz adierazten ez bada, Saltzaileak bermatu egingo du berak egindako zerbitzuek ez dutela akatsik edo hutsunerik izan eta martxan jartzean ere ez dutela izango (martxan jartzea bere ardura bada). Bermea hiru hilabeterako izango da, Zerbitzuak onartzen diren egunetik hasita, berdin dela onarpena berariaz adierazita izatea (Saltzaileak eta Erosleak elkarrekin adostutakoazken ikuskapena gainditzea eta Zerbitzuak onartzen direla esaten duen idatzia bidaltzea) edo adierazi gabea izatea (Zerbitzuak amaitu eta 15 egun igaro ondoren, Erosleak Saltzaileari zerbitzuekin ados ez dagoela

idatziz jakinarazi ez badio; Zerbitzuak erabiltzen hasteagatik edo probak ez egiteagatik).

13.2 13.1 puntuan adierazitako bermeak esan nahi du egindako Zerbitzuetan antzeman diren akatsak eta hutsuneak konpondu egingo direla. Konponketak Saltzaileak berak nahi duen lekuan egingo dira, hau da, Saltzailearen tailerretan edo Zerbitzuak egin ziren lekuan. Akatsak dituen materiala Saltzailearen tailerrera eraman eta ondoren Erosleari bueltatzeak eragin ditzakeen gastuak, esaterako desmuntatze lanak, paketatzeak, zamaketak, garraioak, aduanak eta tasak, Eroslearen kontura izango dira.

13.3 Berme epean egiten diren konponketak Saltzaileak berak zuzenean egin ditzake edo Saltzailearen kontratista batek, baina Saltzailea izango da beti konponketa lan horiek zuzen egiten direla beregain hartuko duena.

13.4 Elementu edo sistema berezietan konponketak egin behar badira ere, egindako Zerbitzu osoaren bermearen iraupena ez da aldatuko eta 13.1 atalean adierazitakoa izaten jarraituko du. Halere, konpondutako elementu edo sistema bereziak hiru hilabeterako bermea izango du konponketa amaitzen den egunetik hasita.

13.5 Bermean ez dira sartuko ekipamenduak erabiltzeak dakartzan ohiko higaduraren ondorioz egon daitezkeen kalteak edo akatsak. Gainera, bermean ez dira sartuko zaintze edo mantentze lanak gaizki egiteagatik, ekipamenduak edo sistemak konpontzen edo aldatzen saiatzeagatik, Saltzailearen enpresakoak ez diren pertsonak egindako manipulazio oker edo zabar, konponketa edota manipulazioengatik sortutako akats eta kalteak, ez eta gehiegi erabiltzeagatik, likido eta gas desegokiak erabiltzeagatik, presio edo fluxu desegokiak erabiltzeagatik eta hornidura elektrikoaren kalitatea aldatzeagatik (tentsioa, maiztasuna, asaldurak) sortutakoak ere. Oro har ez da bermean sartuko Saltzaileari egotzi ezin zaion edozein akats edo kalte. Horiek denek gainera berme iraungitzea ekarriko dute.

13.6 Era berean, bermea iraungita dagoela joko da Zerbitzuak egin zaizkion ekipamenduak edo sistemak Saltzailearen langileen laguntzarekin martxan jarriko direla ezarri bada eta azkenean laguntza hori gabe egiten bada, edo, matxura kasuan, kalteak arintzeko neurririk hartzen ez bada.

13.7 Klausula honetako aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, Saltzaileak ez du inoiz

erantzungo 13.1 atalean adierazitako epea hasten denetik hasita sei hilabete baino gehiagoko denbora tartean Zerbitzuak egin zaizkion ekipamendu edo sistemetan gertatzen diren akatsengatik.

14. Erantzukizunaren mugak

Hitzarmenean ezarritako betebeharrak betetzeagatik edo ez betetzeagatik ego daitezkeen erreklamazioak direla eta, Saltzaileak eta bere agente, langile, azpikontratista eta hornitzaileek dituzten erantzukizunak ez dira guztira hitzarmeneko oinarritzko prezioa baino handiagoak izango eta bertan ez dira inoiz sartuko irabaziak izateari uzteagatik eta diru sarrerak, produkzioa edo erabilera galtzeagatik izandako kalteak, ez eta kapital kostuak, jarduerarik gabe egoteak, atzerapenak eta Eroslearen bezeroek egindako erreklamazioek eragindako kostuak, ordezkotza energiaren kostuak ere. Halaber ez dira sartuko aurreikusten diren aurrezpenetan izandako galerak, ustiapen kostuetan izandako igoerak eta zeharka edo zerbaiten ondorioz izandako kalte bereziak eta edozein motatako galerak.

Klausula honetan Saltzailearen erantzukizunari egiten zaion mugapena beste edozein hitzarmenetan datorren eta beraren aurka doan edo berarekin bat ez datorren beste edozein mugapenaren gainetik egongo da, bigarren mugapen horrek Saltzailearen erantzukizuna gehiago mugatzen badu izan ezik.

15. Ezarri beharreko zuzenbidea. Gainean dituen Jurisdikzioa eta organo Eskumendunak.

Baldintza hauek Espainiako legeen menpe egongo dira eta, beraz, haien arabera interpretatuko dira. Bi aldeek dagokien beste edozein eskumen berariaz baztertzen dute eta Madril hiriko Auzitegi eta Epaitegiaren jurisdikzioaren eta eskumenaren menpe jartzen dira.

16. Ezinbesteko arrazoia

16.1 Ezinbesteko arrazoi batengatik Saltzaileak hitzartutako betebeharrak erantzuteko ezinduta balego, guztiz edo zati batean, bete ezin diren betebeharrak etenda geldituko lirateke zentzuzko denbora batean, betiere egoeraren arabera, eta Saltzaileak ez luke inolako erantzukizun izango horretan.

16.2 Ezinbesteko arrazoia izango da Saltzaileak izatea arrazoizkoa den kontrolatik haratago dagoen arrazoi edo egoera bat, besteak beste, eta ez horiek bakarrik, hornitzaileen, garraio eta zerbitzuen grebak, hirugarrenei hornitzeko sistemetan akatsak, garraio sistemetan akatsak, uholdeak, ekaitzak, istiluak, grebak, saltzailearen langileen edo bere azpikontratisten geldialdiak, sabotajeak, bere gobernuan edo agentzian izandako edozein motatako ekintzak, omisio edo esku-hartze, Saltzailearen lantegian ustekabeko geldialdiak, esaterako matxurek eragindakoak, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako ezinbesteko kasuak, betiere Saltzailearen jarduerari zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

16.3 Ezinbesteko arrazoi bat dagoenean, Saltzaileak Erosleari jakinaraziko dio ahalik eta lasterren, ezinbesteko arrazoia zein den eta gutxi gorabehera zenbat iraungo duen azalduta. Halaber jakinaraziko dio ezinbesteko arrazoia desagertzen denean, arrazoi hori dela-eta etendako obligazioak betetzeko beharko duen denbora azalduta. Ezinbesteko arrazoi bat egoteak eskubidea emango dio Saltzaileari entrega epea behar bestez luzatzeko.

16.4 Ezinbesteko Arrazoiak hiru hilabete (3) baino gehiago iraungo balu, aldeek elkarri kontsulta egingo liekete bidezko konponbidea eta egoerarekin bat datorrena aurkitzen saiatzeko, kontuan izanda Saltzailearen zailtasunak. Hurrengo hogeita hamar (30) egunetan konponbidea aurkitu ezingo balitz, Saltzaileak eskaria indar gabe utziko luke inolako erantzukizunik gabe, eta Erosleari idatziz jakinaraziko lioke.

17. Konfidentzialtasuna

Saltzaileak eta Erosleak elkarri pasatutako dokumentu, datu, material eta informazioa kondifentzialtasunez erabili beharko dute, eta ezin izango diote hirugarren bati eman, ez eta Zerbitzua betetzea eta garatzea ez den beste helburu baterako erabili ere, beste aldeak horretarako erabili ahal dela idatziz onartzen ez badu behintzat.

Goian esandakoa esanda ere, Saltzaileak Erosleraren eta Zerbitzuaren oinarritzko datuak eman ahal izango ditu erreferentzia komertzial gisa.

18. Indargabetzea

18.1 Alde bietako edozeinek indargabetu ahal izango du eskaria beste aldeak eskaria modu nabarmenean betetzen ez badu. Horretarako, beste aldeari idatziz jakinarazi baino ez du egin beharko.

Eskaria modu nabarmenean betetzen ez dela esateko, eskaria betetzen ez duen Aldeari aurretik idatziz jakinarazi eta hark jakinarazpenaren ondorengo hurrengo hogeita hamar (30) egunetan egoerari irtenbidea emateko modurik ez ematea gertatu behar da.

Era berean, honakoak izango dira eskaria indar gabe uzteko arrazoiak:

- Alde bietako edozein desegitea edota likidatzea, bakoitza kide deneko Taldearen barruan egindako bat-egite eragiketen barruan gertatzen bada izan ezik.
- Alde bietako edozeinek garatzen duen jarduerari uztea.
- Ezinbesteko Arrazoiak den gertakari batek jarraitzea / Hiru (3) hilabete baino gehiagotan jarduera etenda egotea, alde bietako batek 16. klausulan aipatzen den lehen jakinarazpen idatzia, onartzen duen aldeak bidalitakoa alegia, jasotzen duen egunetik hasita.

Baldintza hauetako beste klausuletan eskaria indarrrik gabe uzteko berariaz adierazitako beste edozein arrazoi.

18.2 Saltzaileari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik eskaria indar gabe utzi behar den unean, Erosleak honakoa egingo du:

- Saltzaileari jada emanda dauden zerbitzuen balioa ordainduko dio, eskarian ezarritako prezioen arabera.
- Erosleak honetarako eskubidea izango du, baina ez du derrigorrez bete beharko:
 - Saltzaileak bere hornitzaileei edota kontratistei igorritako eskarrietan subrogatzeko eskubidea izango du.
- Saltzaileak eskaria ez betetzearen ondorioz izan ditzakeen kalte eta galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du, Baldintza hauetako 11. klausulan ezarritako mugekin.

18.3 Erosleari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik eskaria indar gabe utzi behar den unean, Saltzaileak honakoak eskuratzeko eskubidea izango du:

- Jada emanda dauden zerbitzuen balioaren zenbatekoa, eskarian ezarritako prezioen arabera.

- Egiteke dauden zerbitzuen zenbatekoa edota bere hornitzaileengandik edota azpikontratistengandik derrigorrez jaso behar dituen eta entregatzeke dauden ekipamendu eta materialena, behin Erosleari entregatu edo berarentzat egin ondoren.
- Saltzaileak bere hornitzaileei edota azpikontratistei igorritako eskariak bertan behera uzteagatik ordaindu beharreko zenbatekoa, eskariak bertan behera uztea posible bada.
- Erosleak hitzartutakoa ez betetzearen ondorioz izan ditzakeen beste kalte eta galera batzuen ordaina.

18.4 Ezinbesteko arrazoi batengatik eskaria indar gabe utzi behar den unean, Saltzaileak honakoak eskuratzeko eskubidea izango du:

- Jada emanda dauden zerbitzuen balioaren zenbatekoa, eskarian ezarritako prezioen arabera.
- Egiteke dauden zerbitzuen zenbatekoa edota bere hornitzaileengandik edota azpikontratistengandik derrigorrez jaso behar dituen eta entregatzeke dauden ekipamendu eta materialena, behin Erosleari entregatu edo berarentzat egin ondoren.
- Saltzaileak bere hornitzaileei edota azpikontratistei igorritako eskariak bertan behera uzteagatik ordaindu beharreko zenbatekoa, eskariak bertan behera uztea posible bada.